LEMOA UDALA

CONCESIÓN DE SERVICIOS/ZERBITZU PUBLIKOAK EMATEKO KONTRATUA

Denominación/Izena	
Servicio de bar-cafetería del Hogar de jubilados/as /Zahar-etxeko taberna-kafetegi zerbitzua.	
Responsable/Arduraduna	**Área/Alorra**
Kontratazio-organoak kontratuaren arduraduna aukeratuko du.	Gizarte Ekintza/Acción Social
Plazo previsto/Aurreikusitako epea	**Presupuesto/Aurrekontua**
2 urte; beste bi urtez luza daiteke	2.000€/urteko
Función-Partida/Funtzioa-Partida	
Ez dagokio	

1. XEDEA.

Agiri honen xedea da Lemoako Zahar-etxeko taberna-kafetegi zerbitzuaren kudeaketarako kontratuaren adjudikazioa lortuko duen enpresak bere gain hartu eta garatu beharreko obligazioak, baldintza teknikoak eta berariazko jarduerak deskribatzea.

2. USTIAPENAREN XEDE DEN LEKUAREN KONTZEPTUA ETA DESKRIBAPENA.

Lemoako Zahar-etxeko taberna-kafetegia Udalaren areto bat da, beharrezko ekipamendua duena eta Gizarte-ekintza Zinegotziaren mendekoa dena; hari atxikita dago, legeak alkateari eta Udalbatzari emandako eskumenak ezertan eragotzi gabe.

Aretoa Lehendakari Agirre kaleko 23. zenbakian dago. Beheko solairu bat da, taberna-kafetegia hartzera zuzendutakoa eta 281,09 m²-ko azalera erabilgarria duena; sukaldea, barra, 3 mahai-gela, 2 biltegi, bulegoa eta komunak dauzka. Zerbitzua martxan jartzeko prest eta egokituta dago erabat inbentarioan zehaztutako elementuekin.

3. ZERBITZUA EMATEKO BALDINTZAK.

1. Adjudikaziodunak Zahar-etxeko taberna-kafetegia erabiltzeko eta ustiatzeko eskubidea izango du, jarduera aurrera eramateko beharrezkoak diren ahalmen guztiekin. Ondorioz, adjudikaziodunak jarduera horri dagozkion edariak eta janaria saltzeko baimena dauka, dagokion legediak ezarritakoaren arabera.

2. Udalak adjudikaziodunaren kudeaketa ikuskatzeko ahalmena izango du, jarduera, instalazioak eta aretoak ikuskatuz. Horrez gain, beharrezko aginduak emango ditu kontratuaren exekuzio egokia mantentzeko edo lehengoratzeko; adjudikaziodunak kontratua derrigor bete beharko du.

3. Adjudikaziodunak beharrezko langile egokiak jarriko ditu zerbitzuaren eskura, kontratuaren xede den zerbitzuak exijitutako kalitate maila handiena lortzeko. Espresuki behartuta egongo da lan-arloko legediak zerbitzua eskaintzeko dituen langileei buruz ezarritakoa betetzera. Zerbitzua betetzeko beharrezkoak diren langileak adjudikaziodunaren mendekoak izango dira funtzionalki zein organikoki. Adjudikaziodunak enpresaburuaren

eskubide eta betebehar guztiak izango ditu, betiere momentu bakoitzean indarrekoa den lan-arloko legediak ezarritakoaren arabera.

Langileak adjudikaziodunak kontratatuko ditu, eta azken horrek ordaindu beharko ditu soldata, gizarte segurantza eta gainerako obligazio fiskaletatik eratorritako obligazio guztiak. Langileek ez dute Lemoako Udalarekin inolako lan-harremanik izango.

4. Adjudikaziodunak eta bere langileek jardueraren erabiltzaileei beharrezkoa den ardura eskainiko diete.

5. Edaria, janaria eta eskainitako gainerako materialak kontsumorako baldintza egokian egon beharko dira, kasuan kasuko legediak elaborazio, erakusketa eta salmentarako zehaztutako arauak betez.

6. Adjudikaziodunak eta bere mendeko guztiek elikagaiak manipulatzeko arauzko agiria eta Funtzionamenduan Jartzeko Baimen Sanitarioa eduki eta elikadura-higieneko arau guztiak bete behar dituzte.

7. Zerbitzua antolatu behar da momentu oro pertsona erabiltzaileen eskaerei azkar eta arretaz erantzuteko. Horretarako, beharrezkoak diren neurri guztiak hartuko dira.

8. Adjudikazioduna jardueran zuzenean aritu beharko da. Kontratua lagatzeko edo hirugarrenekin prestazio batzuen gauzatzea hitzartzeko, adjudikaziodunak aldez aurretik Lemoako Udalaren berariazko baimena eduki beharko du. Baldintza hori betetzen ez bada, kontratua suntsiarazi eta bermea galduko da.

9. Adjudikaziodunak ostalaritzako establezimenduentzako poliziaren legezko xedapenak bete beharko ditu, aplikatu behar direnean.

10. Xedapen ofizialek ostalaritzako establezimenduentzat exijitutako baldintzak betetzeari utzi gabe, adjudikaziodunak Udalak ikus-onetsitako kexa-liburu bat jarriko du erabiltzaileen eskura, eta berehala emango dio eskatzen duen orori. Liburu hori dagoela dioen kartela ikusteko moduko leku batean jarriko du. Gainera, beharrezko erreklamazio-orriak edukiko ditu.

11. Halaber, publikoaren eskura egongo da, ondo ikusteko moduko leku batean, saldutako produktu guztien prezioen zerrenda.

12. Adjudikaziodunaren ardura izango da beharrezko neurriak hartzea jarduera gauzatzen den aretoetan berak babestu beharreko altzariak eta instalazioak (inbentarioak deskribatutakoak) ez hondatzeko, legediaz onartutako gehienezko zarata-maila ez gainditzeko, erretzea erabat debekatzen duen legedia eta edari alkoholikoaren salmentari buruzko indarreko legedia zehaztutako terminoetan betetzeko, eta, oro har, langileen eta erabiltzaileen portaera zuzena bermatzeko.

13. Udalak, adjudikazioduna gutxienez 24 ordu aurretik jakinaren gainean jarriz, mahai eta aretoak erabili ditzake leku horiek eskatzen dituzten udal-jarduerak burutzeko.

14. Adjudikaziodunak Jubilatuen Elkartearekin aretoen erabilera adostuko du, besteak beste, elkartearentzat orduak erreserbatzeko edo podologia-zerbitzurako.

4. ALDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.

I) ADJUDIKAZIODUNAREN BETEBEHARRAK.

Adjudikaziodunak hurrengo konpromisoak hartzen ditu:

A) Tabernaren ustiapena adjudikazioa lortu osteko hurrengo hamar egunen barruan hasiko da, eta kontratua indarrean dagoen bitartean zerbitzu jarraitua eskaini beharko da.

B) Ezin izango da inolako txanpon-makinarik edo joko-makinarik instalatu.

C) Adjudikaziodunak arrisku orotarako aseguru-poliza bat edukiko du kontratuaren xede den aretorako.

D) Ez du tabernan obrarik edo aldaketarik egingo Udalaren baimenik gabe.

E) Kanonak ezarritako epean eta moduan ordaindu beharko ditu.

F) Adjudikaziodunak ordaindu beharko ditu elektrizitate, ur, gasolio, gas, berogailu, hondakinen bilketa eta tratamendu eta jarduera emateko beharrezkoa den beste edozein zerbitzurekin lotutako gastu guztiak.

G) Adjudikaziodunak Zahar-etxeko aretoak zabaldu eta itxi behar ditu Zahar-etxeko tabernarentzat zehaztutako ordutegi berean.

Elektrizitate-gastuak taberna-kafetegiaren eta eraikinean hornidura kontratu independentea duen sukaldearen jardueratik eratorritakoak izango dira; dagokion kaxa izango du, eta kontratuaren zenbakia adjudikaziodunari eskainiko zaio. Dauden gailu elektrikoak erantsitako inbentarioan jasota daude.

Adierazten da taberna-kafetegiko aretoek argindarraren kontratuak barne hartutako aire girotuko sistema bat dutela; aipatutako ordainagirian erabat ordaintzen da, eta lizitatzaileak hori kontuan eduki behar du urteko kanona eskaintzerakoan.

G) Horrez gain, kontratistak taberna-kafetegiko tresneria eta altzarien berritzearekin lotutako gastuak ordaindu behar ditu, baita izan daitezkeen askotariko matxurak ere. Materiala inbentariatuta dago.

H) Tenperaturari dagokionez, taberna-kafetegia leku atsegina izan behar da; neurriak hartu behar dira, neguan zabalik dagoen epean giroa epela izateko, gutxienez 22 gradu izanik.

II). ADJUDIKAZIODUNAREN ESKUBIDEAK.

Hauek dira adjudikaziodunaren eskubideak:

A) Taberna-kafetegiaren aretoak erabiltzea kontratuak jasotako zerbitzuak ustiatzeko.

B) Kontratuak dirauen bitartean instalazioak ustiatzea.

C) Erabiltzaileek ordaindu beharreko prezioak jasotzea.

III). INSTALAZIO PUBLIKOAK ADJUDIKAZIODUNARI EMATEA.

Adjudikazioa eman osteko hamar egunen barruan, Udalak adjudikaziodunaren esku utziko ditu kontratuan jasotako instalazioak eta materiala.

5. JENDEARENTZAKO PREZIOAK.

1. Gainerako eskakizun legalak edo arauzkoak betetzeari utzi gabe, prezioen zerrendak Lemoako Udalaren aurrez aurreko onespena eduki beharko du, eta lokaletan derrigor ikusgai egongo da beti.

Urtero, adjudikaziodunak Lemoako Udaleko udalbatzan aurkeztuko du tabernan saldutako askotariko produktuen prezioen proposamena; Zahar-etxeko bazkideentzat gutxienez % 20 - % 10 merkeagoak izango dira, Zahar-etxea kokatuta dagoen zonako establezimenduen prezioen batez bestekoa kontuan hartuta.

Aipatutako proposamena zerbitzuaren jasangarritasun-irizpidearen arabera egingo da, zerbitzuaren ustiapenarekin lotutako gastuak kontuan hartuz eta, horrela, zerbitzuaren jarraikortasuna bermatuz.

Zahar-etxeko Zuzendaritzarekin hitz egin eta gero, Udalak prezioen zerrenda onartuko du; gainerako eskakizun legalak edo arauzkoak betetzeari utzi gabe, zerrenda zerbitzua eskaintzen den lokaletan derrigor ikusgai egongo da beti.

2. Ondoren, prezioen zerrendan edozein aldaketa egiteko baldintza berdinak bete beharko dira.

6. ERANTZUKIZUNA.

1. Adjudikaziodunak konpromisoa hartzen du Lemoako Udalak bere esku utzitako lokalak eta instalazioak kontserbatzeko eta dagokien mantentzea egiteko.

2. Bere langileek Lemoako Udalaren lokal, altzari, instalazio edo bestelako edozein jabetzatan kalterik eraginez gero, adjudikaziodunak ordaindu beharko du. Era berean, adjudikaziodunak edozein material, ondasun edo gauza ordaindu beharko du, bere langileetako batek ebatsi duela frogatuz gero.

3.- Adjudikaziodunak erantzukizun zibileko aseguru-poliza bat eduki behar du, gutxienez prestazioaren erabiltzaileek jasan ditzaketen kalteak ordainduko dituena, baita kontratu honetako zerbitzua eskaintzearen ondorioz izan daitezkeen bestelako kalteak ere, elikadura-intoxikazioa barne. Gutxienez, 100.000,00 eurokoa izango da ezbeharreko, eta ez du frankiziarik izango. Kalteen zenbatekoa aseguratutako kopurua baino handiagoa izanez gero, adjudikaziodunak aldea ordainduko du, betiere kalteak zerbitzuaren ustiapenaren ondoriozkoak izan direla frogatzen bada.

Kontratuaren adjudikazioa lortu aurretik, adjudikaziodunak aipatutako polizaren fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko du, polizaren ordainketaren egiaztagiriarekin batera, Idazkaritza kontu-hartzailetzan.

Halaber, adjudikaziodunak urtero asegurua indarrean dagoela frogatzen duen dokumentuaren kopia aurkeztu behar du, kontratuak dirauen bitartean.

Polizak kontratuaren adjudikazioa lortu aurretik aurkeztu behar ditu.

4. Adjudikaziodunak bete behar ditu lan arloan, gizarte segurantzaren arloan, desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzearen arloan, laneko segurtasun eta higienearen arloan eta lan-arriskuen prebentzioren arloan, urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuak onetsitako azaroaren 8ko Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legeak zehaztutakoaren arabera indarrean dauden xedapenak, baita kontratua betetzean promulgatu daitezkeenak ere. Horiek betetzen ez badira, Lemoako Udalak ez du inolako erantzukizunik izango.

Ez da inolako lan-harremanik izango kontratua gauzatzera zuzendutako langileen eta Lemoako Udalaren artean. Beraz, langileak adjudikazioa lortutako enpresaren direkziozko boterearen eta antolamenduaren mende egongo dira legez ezarritako eremu eta orden guztietan. Gauzak horrela, enpresa izango da kasuan ezarri daitezkeen xedapen legal guztiak betetzearen arduradun bakarra, batez ere, kontratazio, gizarte segurantza, lan-arriskuen prebentzio eta zergen arloetan. Langileek ez dute Lemoako Udalarekin inolako lan-harremanik edo harreman juridikorik izango, Udalak legearen edo kontratuaren arabera kontrol- eta ikuskaritza-eskubideak dituela ahaztu gabe.

Zerbitzu-kontratuak bukatzean, kontratuaren xede diren lanak egin dituzten pertsonak ezin izango dira inola ere sendotu kontratua egindako sektore publikoko erakunde, organismo edo entitatean.

Kontratuaren hasieran aurkeztu beharko dira kontratuak dirauen bitartean zerbitzua eskainiko duten langileen zerrenda, horietako bakoitzaren kontratu mota eta Langileen Zerrenda Izenduna eta Gizarte Segurantzako Kotizazioen Likidazioen Zerrenda.

Kontratuak dirauen bitartean, hilabetean behin aurkeztu beharko ditu Langileen Zerrenda Izenduna eta Gizarte Segurantzako Kotizazioen Likidazioen Zerrenda.

5. Adjudikaziodunak bete behar ditu jarduera emateagatik inposatuta dauden betebehar fiskalak, eta, bereziki, Lemoako Udalari ordaindu beharrekoak.

6. Ezin izango da inolaz ere edonolako aldaketarik egin, besteak beste, instalazioetan, lokalean edo zerbitzuaren funtzionamenduan, aldez aurretik Lemoako Udalaren baimena eduki gabe.

7. Edariak, snack-ak, etab. saltzeko makinak edo bestelako makinak instalatzeko, aldez aurretik Lemoako Udalaren baimena eduki beharko da.

8. Adjudikazioduna izango da instalazioen funtzionamendu eta kontserbazioaren arduradun bakarra, baita kontratuaren xede den jarduerak erabiltzaileei eragindako kalteen erantzule bakarra ere.

7. TRANSFERENTZIA EDO LAGAPENA.

Adjudikazioa pertsonala eta besterenezina da; Udalbatzaren berariazko baimenik gabe ezin izango da alokatu edo laga.

8. INSTALAZIOEN ETA OBREN LEHENERATZEA.

Kontratuaren epea bete eta gero, instalazioak eta materialak Udalaren esku geratuko dira berriz ere, eta ondo kontserbatuta egon beharko dira. Hori horrela dela ikusteko, gutxienez epea bukatu baino hiru hilabete lehenago, udal administrazioak taberna-kafetegiaren egoera ikuskatu beharreko teknikariak izendatuko ditu; ikuskaritza teknikoaren emaitzak kontuan izanda, aurreikusitako baldintzetan mantendu eta entregatzeko beharrezkotzat jotako konponketa-obrak edo konponketa-lanak egingo dira. Konponketa- edo lehengoratze-obra eta lan horiek adjudikaziodunak burutu beharko ditu, Toki Korporazioen Zerbitzuen Erregelamenduaren 131. artikuluak ezarritakoaren arabera.

9. ARAU-HAUSTEAK.

Adjudikaziodunak egindako arau-hausteak sailkatuko dira, eta arinak, larriak edo oso larriak izango dira.

1. Falta arinak hauek izango dira:

a) Egun batean zehar jarduera etetea.

b) Zerbitzuak eskaintzeko edo tabernaren funtzionamenduaren ordutegian atzerapena egotea.

c) Preskripzio teknikoen agiri honek preskribatutakoa betetzean irregulartasunak izatea, zuzenean kalte ekonomikoak eragiten ez badute.

d) Baimendutako perimetrotik kanpo edo jarduerarako ezarritako ordutegietatik kanpo saltzea.

2. Honako arau-hauste hauek larriak izango dira:

a) Modu jarraituan eta sistematikoan jarduera atzerapenarekin eskaintzea.

b) Jarduera edozein arrazoirengatik, justifikaziorik gabe, etetea, zortzi egun baino gutxiagoko epean eta urtean bi aldiz baino gehiago gertatuz gero.

c) Osasun-baldintzak ez betetzea, edo Lemoako Udalak, besteak beste, osasunaren kalterako diren egoerak eta arriskuak ekiditeko emandako aginduak ez betetzea, formalki ohartarazita egon eta gero, adjudikaziodunak berriro betetzen ez baditu.

d) Falta arinak birritan edo gehiagotan egitea, sei hilabeteko epean.

e) Ikuskaritza-helburuak betetzeko agintaritza eskudunak edo bere agenteek eskatutako informazioa ez ematea.

f) Kontratuaren xede ez den jarduera bat edo zenbait jarduera gauzatzea.

g) Adjudikaziodunaren jardueraren ondorioz makineriak, altzariek edo instalazioek balioa galtzea.

h) Edariak eta elikagaiak Udalak onartutako prezioen gainetik saltzea.

i) Adjudikaziodunak egindako obligazioen hauste guztiak, oso larriak kalifikazioa ez dutenak eta beren izaeragatik arinak ez direnak.

3. Honako arau-hauste hauek oso larriak izango dira:

a) Aurreikusitako epean zerbitzua ematen ez hastea.

b) Kontratatutako jarduera geldiaraztea edo zerbitzua ez ematea, eta edozein arrazoirengatik etetea, zortzi eguneko baino epe handiagoan eta, epe berdinean edo txikiagoan izanez gero, urtean zenbait aldiz gertatuz gero, ezinbesteko arrazoiak alde batera utzita.

c) Udalari kontratuaren prezioa ez ordaintzea.

d) Besteak beste, instalazioak, makineria eta, oro har, kafetegia eta sukaldea egoera onean ez kontserbatzea.

e) Laneko arauak ez betetzea.

f) Arau higienikoak eta sanitarioak ez betetzea.

g) Kontratatutako jardueraren zerbitzua ageriki ondo ez eskaintzea edo sistematikoki atzerapenarekin eskaintzea.

h) Kontratatutako jarduera eskaintzean iruzurra egitea, baliabide egokirik edo exijitutako funtsezko elementurik gabe eginez.

i) Kontratuaren xedea den jarduera erabat edo zati batean lagatzea, besteri alokatzea edo transferitzea, Udalaren berariazko baimena eduki gabe.

j) Urtebeteko epean bi falta larri edo gehiago egitea.

10. ZIGORRAK KONTRATISTARI ARAUAK HAUSTEAGATIK.

A. Zerbitzua partzialki ez betetzea.

Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratuan zehaztutako zerbitzuak partzialki gauzatzen ez baditu, administrazioak kontratua suntsiaraztea edo kontratuaren prezio osoaren % 10eko diru-zigorra jartzea aukeratu ahal izango du.

B. Zerbitzua akatsekin betetzea.

Kontzesioaren xede den zerbitzua akatsekin betez gero, administrazioak zigorrak ezarri ditzake; horietako bakoitza ezin izango da kontratuaren prezio osoaren % 10ekoa baino handiagoa izan, BEZik gabe. Gainera, zigor guztien kopuruak ezin izango du adostutako prezioaren % 50 gainditu.

Ingurumen, gizarte eta lan esparruetako obligazioak ez betetzea.

C. Kontratistak ez baditu ingurumen, gizarte eta lan esparruetako betebeharrak betetzen, bereziki, behin eta berriro berandu ordaintzen baditu soldatak edo hitzarmen kolektiboetatik eratorritako lan-baldintzak baino okerragoak aplikatzen baditu, larriak edo engainuzkoak badira, eta SPKLren 201. artikuluak aurreikusitakoa ezarriz, zigorrak ezarri ahal izango ditu, eta zehapen horietako bakoitzak ezin izango du gainditu kontratuaren prezioaren % 10a, BEZik gabe. Gainera, zigor guztien kopuruak ezin izango du adostutako prezioaren % 50 gainditu.

D. Azpikontratistekiko betebeharrak ez betetzea.

SPKLren 217. artikuluak zehaztutakoa betetzeari utzi gabe, kontratistak azpikontratistekiko betebeharrak betetzen ez baditu, administrazioak zigorrak ezarri ditzake; horietako bakoitza ezin izango da kontratuaren prezio osoaren % 10ekoa baino handiagoa izan, BEZik gabe. Gainera, zigor guztien kopuruak ezin izango du adostutako prezioaren % 50 gainditu.

E. Langileen subrogazioko betebeharrak ez betetzea.

Kontratistak kontratuaren xedea den zerbitzua eskainiko duten langileen subrogazioaren arloko betebeharrak betetzen ez baditu, administrazioak, SPKLren 130.4. artikuluak aurreikusitakoa ezarriz, zigorrak ezarri ahal izango ditu, eta zehapen horietako bakoitzak ezin izango du gainditu kontratuaren prezioaren % 10a, BEZik gabe. Gainera, zigor guztien kopuruak ezin izango du adostutako prezioaren % 50 gainditu.

11. OBRAK ETA INSTALAZIOAK.

Ez da aurreikusten kontratistak ustiapenerako obrarik edo instalaziorik egin behar izatea. Nolanahi ere, kontratistak egoera onean mantendu behar ditu obrak, instalazioak, ondasunak eta Udalak emandako baliabide osagarriak.

Udalari idatziz jakinaraziko zaizkio egingo diren jarduketak, eta obrak egiteko Udalaren berariazko baimena eduki beharko da.

12. ORDUTEGIA.

Halaber, adjudikaziodunak konpromisoa hartzen du zerbitzua Udalak zehaztutako gutxieneko ordutegian eskaintzeko. Ordutegi hori goizeko 09:00etatik arratsaldeko 21:30era doa, etenik gabe, astelehenetik igandera. Edonola ere, adjudikaziodunak ordutegia handitzea eskatu dezake, negozioa ustiatzeko duen interesa kontuan izanda, betiere eskari horretan bere kargura dauden langileen eskubideak kontuan hartzen direla erakusten duten bermeak aurkezten badira.

Hala ere, Udalean ostalaritza sektorerako ezarritako ordutegi maximoak bete beharko dira.

Zerbitzuaren irekiera egutegiari dagokionez, adjudikaziodunak asteko egun guztietan zabaldu beharko du.

Adjudikaziodunak Zahar-etxeko taberna-jatetxea hurrengo egunetan itxi dezake: maiatzaren 1ean, abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean. Hala ere, bere erabakia da adierazitako egun guztietan edo egun horietako batean irekitzea, horretarako Lemoako Udalari berariazko baimena eskatu behar izan gabe.

Gainera, oporretarako abuztua ezartzen da. Hilabete horretan, tabernako zerbitzua itxita egongo da. Adjudikaziodunak oporraldi hori murriztea eskatu dezake, negozioa ustiatzeko duen interesaren arabera egokia den proportzioan.

ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNINARIA

ENDIKA JAIO BILBAO - 78896931P

Firmado digitalmente por ENDIKA JAIO BILBAO - 78896931P
Fecha: 2022.11.30 14:29:50 +01'00'

ENDIKA JAIO BILBAO

INBENTARIOA

1. MAHAI-ARETOA

12 mahai 33 besaulki Philips 51” telebista 1 Erloju 1 Oihalezko gortinak leiho guztietan Hormako 4 esekileku Zutikako 3 esekileku Apalategi-aldizkaritegia Mahai-jokoetarako apalategia 2 paperontzi	
6 mahai 26 besaulki Zutikako esekileku 1 2 paperontzi	

3. MAHAI-ARETOA	
6 mahai 27 aulki 2 bionbo 3 paperontzi Hormako 2 esekileku Zutikako 2 esekileku Oihalezko gortinak leiho guztietan	
KOMUNAK	
ANDREAK 2 paperontzi 80X160 ispilu 1 2 konketa Komun 1 Komuneko paper-banagailu 1 Eskuetako paper-banagailu 1 Xaboi-banagailu 1 Eskuak lehortzeko gailu 1 Minusbaliatuentzako barra 1	

	
GIZONAK Paperontzi 1 80X160 ispilu 1 2 konketa Komun 1 Zutikako 2 pixaleku Komuneko paper-banagailu 1 Minusbaliatuentzako barra 1	

ESKAILBURUA Pixoihalak aldatzeko toki 1 Paperontzi 1	
SUKALDEA	
Ke-kanpaia 3 suteko gas-sukaldea Bi putzuko harraska Zurezko beheko armairuak Armairu-apal altua Granitozko gainekoa	

TABERNA	
Edalontziak garbitzeko Fagor LVC-21 1 Garagardoa hozteko makina Hiru tapadun barrako hozkailua Putzu bateko harraska Altzairu herdoilgaitzeko armairua kafe-makinaren zonan Altzairu herdoilgaitzeko armairua edalontzientzat Panasonic 47” telebista 5 taburete San Miguel garagardoko 3 txorrota Telefono 1 2 mahai txiki Kartentzako 12 tapete Barran, egurrezko 5 paperontzi	 
BILTOKIAK	

SARRERAKO BILTOKIA Igel-toka 1 SUKALDEKO BILTEGIA 6 aulki Armairu 1 1.00 m-ko lau apalategi	
BESTE ELEMENTU BATZUK	
2 su-itzalgailu Sabaiko aire girotuko 3 makina Sabaiko haizagailu 1 4 lanpara barraren gainean Bi fluoreszenteko 19 lanpara 7 argi-puntu horman sartuta	

LEMOAKO UDALEKO ARKITEKTO TEKNIKOA

KONTXI URIARTE LARREA - 45620080V

Firmado digitalmente por KONTXI URIARTE LARREA - 45620080V
Fecha: 2022.11.30 14:29:03 +01'00'